

EIRE: euskal irakasleen bilgune

Ekainaren 12an egingo du batzar irekia unibertsitatean euskararen alde eragiteko sortutako elkarteak

Ainhoa Oiarzabal / Donostia

Unibertsitateetako irakasleek erakunde berri bat sortu dute: EIRE. Euskal Herriko unibertsitateetako euskal irakasleak eta atzerriko unibertsitateetako euskal irakasleak bilduko dira erakunde horretan, euskararen alde eragin eta euskal irakasleen arteko komunikazioa lantzeko.

EUSKAL HERRIKO nahiz kanpoko unibertsitateetako euskal irakasleen elkarte da EIRE: Euskal Herriko unibertsitateetako Euskal Irakasleen Elkarte. Era berean, Euskararen Gizarte Erakundea ere bada; izan ere, euskararen normalkuntzaren aldeko lana egiteko unibertsitate-irakasleek sortu duten erakunde autonomoa da.

EIRE erakundearen kordinatzaile Iñaki Zabaletak esan digunez, Euskal Herriko unibertsitateetan «euskararen garapen oso eta eutsigarria» lortzeko eratu dute EIRE. «Horrekin batera, euskal irakasleen arteko komunikazioa bultzatu nahi dugu, bai Euskal Herriko unibertsitateetako irakasleekin, bai kanpoko unibertsitateetan jarduten duten euskal irakasleekin», gaineratu digu Zabaletak.

Helburu orokorrak eta estrategikoak

EIRE erakundearen helburu orokor horiek lortu bitartean helburu estrategiko batzuk proposatu ditu EIRE elkartearen batzorde eragileak. Hala, unibertsitateko euskal adarrak sendotzea, euskal irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren kalitatea goratzea edota euskal irakasleen lan egoerak hobetzea dira proposatu dituzten helburu estrategikoetako batzuk.

Era berean, helburu horiek lortzeko jarraitu beharreko bidea ere proposatu dute gaur egun EIREko kide diren unibertsitate ira-

Komunikazioa bultzatu

■ ■ ■ Euskal irakasleen arteko komunikazioa sendotu nahi dute EIREko kideek

tatean eragitea da, eta bai departamenduekin bai unibertsitateko insituzioekin harremanak izango ditu, besteak beste, euskalduntze plan-gintzaren jarraipena egiteko.

Informazioa bildu eta banatu

Lehenik eta behin, Euskal Herriko unibertsitateetako euskararen egoeraren berri jaso eta horri buruzko informazioa zabaltzeko asmoa dute; informazio hori gizarteratzea alegia. Informazioarekin batera, euskarak unibertsitatean duen egoeraren inguruan eztabaidaguneak sortu nahi dituzte. Horrek unibertsitateetako irakasleen

arteko komunikazioa bultzatuko luke. Eta, azkenik, Euskal Herriko unibertsitateetako erabakiguneetan eta erabakiak hartzen dituztenengan eragitea lortu nahi dute.

Izan ere, irakasle elkarte honen helburua unibertsitatean eragitea da, eta bai departamenduekin bai unibertsitateko insituzioekin harremanak izango ditu, besteak beste, euskalduntze plan-gintzaren jarraipena egiteko.



EIRE elkarteak web orria jarri du interneten. Honako hau da helbide elektronikoa: www.eire.lg.ehu.es.

kasleek.

Eztabaida eta ekarpenak internet bidez

■ A.O. / Donostia
INTERNET bidez ari da informazioa zabaltzen eta jasotzen EIRE erakundea. Eztabaidarako txostena, EIRE elkartearen kronologia edota ekarpenak egiteko txokoa jarri dute interneten, web orrian. Web orria, besteak beste, EIREren berri emateko sortu dute: www.eire.lg.ehu.es. da helbide elektronikoa.

Hala ere, ekintza horiek guztiak proposamenak besterik ez dira oraingoz. Era berean, unibertsitate guztiak bilduko dituen elkarteaz gainera, unibertsitate bakoitzean talde txikiak sortzeko aukera ez dute baztertu.

Euskararen Unibertsoa abiapuntu

EIRE erakundearen filosofia Euskararen Unibertsoaren

EIRE erakundearen batzorde eragile ari da erakundearen berri eman eta ekarpenak jasotzen. Finean, aipatu batzordea ari da ekainaren 12ko batzarra prestatzen. Batzar irekia izango da, eta orduan finkatuko dituzte erakundearen izaera eta arauak. Era berean, batzorde eragile berria aukeratu du bertan. Izan ere, orain arteko batzor-

de eragilea EIRE erakundearen hastapenetan elkartu ziren 65 unibertsitate irakasleetatik sortu zen, eta behin-behinekoa da.

Orain, batzarra egin bitartean, apirilean eztabaidagai jarritako txostenari irakasleek eginiko ekarpenak ari da jasotzen EIREko batzorde eragilea. Ekarpenguztiak jasotzeko eta txukundu ondoren osatuko dute

EIREren txostena, eta elkartearen bultzatzaileei bidaliko diete, batzar irekia egin aurretik irakur dezaten. Lehen esan bezala, datorren hilean egingen dute batzarra, eta bozketa bidez hartuko dituzte erabakiak.

Lanean, berriz, datorren ikasturtean hasiko dira, elkartearen eratzeko eman beharreko pauso guztiak eman ondoren.

berbera da. Hau da, euskal hizkuntz komunitatearen eta euskararen garapen oso eta eutsigarria lortu nahi dute. Ideia horri jarraituz sortu zen Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua, eta garai hartan proposatu zen lehen aldiz EIRE erakundea sortzea. Euskal irakasleen jardunaldietan proposatu zen ideia hori, iazko apirilean.

Harrezkeroztik hainbat bileran egin dituzte Euskal He-

rriko unibertsitateetako irakasleek erakundearen nondik norakoak hitz egiteko. Bileren horiek Euskal Herriko unibertsitateetan egin dituzte. Hala, Nafarroako Unibertsitatekoekin izan ezik, Euskal Herriko gainerako unibertsitateetako hainbat irakasleekin bildu direla azaldu digu Iñaki Zabaletak: «Hango irakasleekin biltzea da eskuartearen daukagun zeregine-tako bat», esan zuen.